

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio ereduren oinarria, beraz, gu horretan zentratuko gara. Zerbitzua mundu guztiaren eskura egon arren, zehazki ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak dituzten pertsonetan zentratuko gara:

Gure bezero potentzialak 4 irizpide nagusi beteko dituela aurreikusten dugu. Lehenik eta behin, kirolzalea izatea eta crossfita gustatzea edo kirol honek atentzioa deitzea. Bigarren lekuan Goierri edo inguruetako biztanlea izatea, gure gimnasioa Urretxuko industrialdean kokatuko da eta. Beste irizpide garrantzitsu bat, adina izango da, nahiz eta inorri atea ixten ez dizkiogun gure ustez pertsona gazteak etorriko direlako gimnasia (16-40 urte bitartekoak). Eta azkenik hauek bereizteko, crossfitarekiko duten esperientzia hartuko dugu ardatz gisa.

Hasteko gure negozioa lehen aipatu dugun bezala, Urretxuko Mugitegiko industrialdean kokatuta egongo denez, inguruko herrietako biztanleentzako izango da hasiera batean, baina honek ez du esan nahi gure inguruetako herrietakoa ez den norbaitek atea itxita edukiko dituenik.

Honetaz gain, gure zerbitzua maila guztietako pertsonen kontsumituko dutela aurreikusten dugu. Hasiberriak kirola probatzera joango direla pentsatzen dugu. Erdi mailakoak kirol honetan beraien maila mantentzera edo igotzera, eta goi-mailakoak berriz, ahal dutenean hobetzera, edo erdi-mailako batzuen kasuan bezala, hau mantentzera.



Egingo duten jarduera fisikoari dela eta, kirol munduan sartuta egongo direla uste dugu. Eta bezeroak etortzeko arrazoi nagusia euren fisikoa hobetze nahia dela pentsatzen dugu. Horrez gain Crossfita gustatu egingo zaio, edo gutxienez kirol bezala atentzioa deituko dio, izan ere, gure gimnasioa bereziki horretara dedikatzen delako.

Era berean adinak ere erlazio handia izango du beste irizpideekin, eta gure zerbitzua kontsumituko dutenak 16-40 urte inguru izango dituztela aurreikusten dugu.

Honetaz guztiaren gain, 4 talde bereiziko ditugu bezero guztien artean eta hauek izango dira talde bakoitzeko pertsonen beteko dituzten ezaugarri nagusiak:

Kirolean duten mailaren arabera:

- Hasiberriak: Crossfitean esperientzi urria du
- Erdi mailakoak: Crossfitarekin kontaktu eskasa
- Goi mailakok: Crossfiten adituak dira

Errehabilitazioa: Leku zehatz bateko lesioa eduki duenean, hori indartu nahi duenean etorriko da bezeroa gure gimnasia. Horretarako ariketa espezifikoa egingo ditu gure makinak aprobetxatuz.

Gure bezero potentzialak hauek direla ikusita gure gimnasioak laguntza bat eskaini dezakela pentsatzen dugu, lesioetatik recuperatzen laguntzea ere garrantzitsua da eta.